

ESPARTA USTELKERIAREN KONTRA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Esparta (Grezia) K.a XII.-VII. mendea. Likurgok hainbat erreforma ezarri zituen hirian eta Espartako Konstituzioa ere hari egosten diote. Likurgoz aritzean, zaila da errealitatea eta kondaira bereiztea, Antzinaroko hainbat historialarik jaso baitzuten haren berri (Herodotok, Jenofontek, Plutarkok...). Horregatik ezin da, besteak beste, bizi izan zen garaia zehaztu.

Iturri joriena Plutarkoren *Bizitza paraleloak* da. Bertan jasotzen da Likurgok ustelkeriaren eta aberaste bidegabearen aurka abiatutako bide simple baina eraginkorra. Espartar agintariak arazoaren jatorrira jo zuen: dirura. Ordura arteko urrezko eta zilarrezko txanponak erretiratu eta burdinazko txanpon astunak eginarazi zituen. Txanpon berriei balio oso txikia emanez, hiper-inflazio modukoa eragin zuen eta “espartarrek txanpon zorroak zaldiz tiratutako gurdie ordezkatu behar izan zituzten”.

“Soilik aldaketa horrekin Lazedemonia askotariko krimenetatik askatu zuen; nork lapurtuko zuen, nork joko zuen eroskeriara edo nork erabiliko zituen amarruak, emaitza ezin bazen ezkutatu, ez bazuen kodizia pizten eta etekinik ez bazekarren? [...] Besteek baino gehiago zutenei ez zien ezertarako balio eta ez zuten oparotasuna harrokeriaz erakusteko biderik”.



MATT POPOVYCH

Likurgo Espartakoaren estatua, Bruselako Justizia Jauregiaren sarreran. Likurgok hainbat erreforma ezarri zituen greziar hirian, besteak beste, ustelkeriaren aurka.

Baina luxua eta gehiegikeriekiko irrika diruaz harago ere itzali nahi izan zuen eta horretarako hiritarren elikadura arautu zuen. “Denek elkarrekin eta berdin jaten zuten, inor itsu-itsuan gizendu ez zedin, gorputzak alferrik gal ez zitezten, nork beti gaixoen moduan joka ez zezan”.

Espartar guztiak egunean hirutan jangela komunitario batean biltzen ziren eta han ilotek *sisitia* edo jakiak ematen zizkieten. Hau da, berdintasunaren paradisu berri hartan janaria esklaboek

zerbitzatzen zuten. Inor ez baita perfektua, ezta Likurgo bera ere.

Eta, hala ere, horretan saiatu zen bizitzaren amaiera arte, beti ere kondairaren muga dagoen kontakizunaren arabera. Bidaia bat egin baino lehen, espartarrei zin eginarazi zien ezarritako legeak errespetatuko zituztela bidaia-rik itzultzen zen arte. Juramentua lortu zuenean abiatu zen, baina ez zen sekula itzuli. Bere buruaz beste egin omen zuen espartarrek legeak betiko bete zituzten. ■



PIETRO PAOLINI

13 milioi kideko zuhaitz genealogikoa

AEBetako Columbia Unibertsitateko ikerlari talde batek geni.com genealogia plataforma kolaboratiboko 83 milioi profil aztertu ditu eta *Science* aldizkarian eman du emaitzen berri. Guztira, oraingoz elkarren artean loturarik ez duten 5,3 milioi zuhaitz bereizi dituzte eta zuhaitz genealogikorik handiena 13 milioi pertsonen osatzen dute. Yanib

Elrich genetista eta ikerlan honen arduradunaren arabera, “gizaki guztiak familia bereko kideak” garelako ondoriozta daiteke lan honetatik. Baina oraingoz familia hori mugatua da, webguneko erabiltzaile gehienak Europakoak nahiz Ipar Amerikakoak eta ingeles hiztunak baitira. Beraz, erabiltzaileen profila zabaldu ahala handituko da familia. ■